

Ermuko emakume zinegotziak

Ez bat eta ez bi. Hainbat dira gure herrian Udaleko zinegotzi kargua izan duten emakumeak. Zerrendatuta agertzen dira antzinakotasun gehien dutenetatik legealdi honetan aritu izan diren aurpegi berrietara.

Emakumeak kargu publikoak betetzen ikustea demokraziaren eskutik etorri zen. Diktadura garaian andrazkoak etxe esparrura mugatu zituzten bezala, aro berrian sartzen ginen seinale izan zen haiek politika eta herrigintzara egindako jauzia. Ermuko emakume zinegotzien datuei erreparatuta, 4 urteko legealdi bakarria egin du gehiengoak, pare bat batek baino gehiagok... baina hiru emakume dira rankinean

aurrenengo daudenak: Natividad Alonso, M^a Asun Ardanza eta Arritxu Araiztegi, seina legealdi beteta dituzte. Aipagarria ere II. Errepublika garaian Ermuan zinegotzien zerrendan dagoen Irene Baskararen kasua, jatorriz eibartarra den 44 urteko andrazkoa. Santos Suinaga alkate zela, 1933ko apirilko hauteskundeetan osatutako udalbatzean hartzen du parte, 9 zinegotzitik bera izanik andrazko bakarria eta Bizkaian ere bakarrenetako.



Datuei tiraka jarraituz, 1979ko apirilko lehenengo hauteskunde demokra-

tikoetan, 24 zinegotzitik 6 andrazkoak dira, udalbatzaren laurdena osatuz. Urteetara portzentajea igoaz joango da eta 2007-11 legealdian 16tik 9 dira, erditik gorakoa. Izenak irakurtze hutsarekin, batzuk gaur egun karguan egon ez arren ere, udalbatzarekin lotzen jarraitzen ditugu. Lorratza lagatzen den seinale! Zalan-tza barik lau, zortzi edo urte gehiagoko jardun publikoa intentsua eta ardu-raz betea suertatzen da horretan aritutakoentzat, sigla eta ideologiaren morroi, kritikatuak sarritan eta ez beti behar bezala errekonozituak.

Estibalitz González



1987-91ko legealdiko zinegotzietako batzuk, Francisco Berjón alkatearekin

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

IZENA	ALDERDIA	LEGEALDIA
Irene Bascaran Alberdi	EAJ	1933-37
Maritxu Malkorra Zubimendi	EAJ	1979-83
Begoña Vesga Allende	PCE PCE EB/IU	1979-83 1983-87 1991-95
Arrate Egia Elorza	PCE	1979-83
Josefina Urkijo Zuazua	Candidatura Popular Ermua	1979-83
Carmen Biain Santiago	Candidatura Popular Ermua	1979-83
Espe Espín Ondarra	HB	1979-83
Mari Carmen Acebes Quiñones	PSOE PSOE	1983-87 1987-91
Agurne Agirregomezkorta Isasi-Isasmendi	EAJ-EA EA	1983-87 1987-91
Natividad Alonso Estalayo	PSOE PSE-EE PSE-EE PSE-EE PSE-EE PSE-EE	1987-91 1995-99 1999-2003 2003-07 2007-11 2011-15
Soledad Ruiz Lucio	PSOE	1987-91
Mari Nieves Antxustegi Azpiri	EAJ	1987-91
Arritxu Araiztegi Arrizabalaga	EAJ EAJ-EA EAJ-EA EAJ-EA EAJ-EA EAJ-EA	1987-91 1991-95 1995-99 1999-2003 2011-15 2015-19
M ^a Asun Ardanza Telleria	EE PSE-EE PSE-EE PSE-EE PSE-EE PSE-EE	1987-91 1991-95 1995-99 1999-2003 2003-07 2007-11
M ^a Jesus Azkoitia Corrales	PSE-EE	1991-95
Carmen García García	PSE-EE	1991-95
Espe Urreta Espín	HB	1991-95
Ana Crespo Nuño	PP PP	1995-99 1999-2003
Mónica Domínguez Rodríguez	PP	1995-99
Inés Fernández Iglesias	PP	1995-99
Berta Abelleira Teijeiro	PP	1995-99
Nasta Castañeda Ruiz	EB/IU	1995-99
Oihane Mallagarai Revilla	HB	1999-2003
M ^a Angeles Gorrotxategi Arrizabalaga	EAJ-EA EAJ-EA	2003-07 2007-11
Maidier Totorika Olaizola	EAJ-EA EAJ-EA	2003-07 2007-11
Leire Zapico Reol	PSE-EE	2007-11
Patricia Alvarez Velasco	PP	2007-11
Virginia Arroyo Aburto	PP PP	2007-11 2011-15
Rosa M ^a Caballero Rubio	EB/B EB/B	2007-11 2011-15
Eva M ^a Fernández Pajuelo	EB/B	2007-11
Lorena López García	PSE-EE	2011-15
Mónica Marín Penuelas	PP	2011-15
Silvia Serrano Gómez	EAJ-EA	2015-19
Oihane Suárez Conde	Ermua Ahal da	2015-19
Beatriz Gámiz Mata	PSE-EE	2015-19
Rosa M ^a Cid Seara	PSE-EE	2015-19
Mireia Arginzoniz Garitaonandia	EH Bildu	2015-19
Hiart Redondo Urueña	EH Bildu	2015-19